

Esp. zk. N.º Expte.	Eskatzaileareni zena eta abizenak <i>Nombre y apellidos solicitante</i>	Modulua <i>Módulo</i>	Emandako diru-laguntza <i>Subvención concedida</i>
150	Uzcudun Echenagusia, Maria Luisa	4	859
163	Vallejo Franco, Estibaliz	5	1.374
30	Velez Gortazar, Maria Lourdes	4	1.030
15	Vieites Mira, Josefa	2	309
199	Villanueva Labayen, Maria Fermina	4	1.030
144	Zabala Goikoetxea, Maddi	3	515
92	Zabalo Cuadra, Haizea	5	2.061
153	Zaldua Iriberry, Miren Koruko	2	309
131	Zamakola Ibaibarriaga, Ikerne	5	2.061
134	Zarraga Alonso, Amaia	4	1.030
148	Zeberio Aierbe, Benita	5	2.061
194	Ziganda Sarratea, Lourdes	4	1.030
95	Zorrozuza Isasi, Maria Purificacion	5	2.061
39	Zubia Abad, Eskarne Aintzane	4	1.030
140	Zubizarreta Lizundia, Itsaso	5	2.061
167	Zuriarrain Mendiguren, Eider	5	2.061

## INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

### 7093

EBAZPENA, 2007ko azaroren 20koa, Merkataritza, Kontsumo eta Industria Segurtasuneko sailburuordearena; honen bidez, 2008ko ekitaldiari dagokionez, kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubide eta interesak sustatu eta babesteko toki erakundeei eta haiek sustatutako erakundeei diru-laguntzak emateko deialdia jakinarazten da.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2005eko martxoaren 30eko Aginduaren bitartez —Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2007ko maiatzaren 29ko Aginduak aldatua (2007ko ekainaren 27ko EHAA)—, kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubide eta interesak sustatu eta babestearren, toki erakundeei eta haiek sustatutako erakundeei diru-laguntzak emateko programa arautu zuen.

Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren lege-aurreproiektuan aurreikusitako aurrekontu-

## DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

### 7093

RESOLUCIÓN de 20 de noviembre de 2007, del Viceconsejero de Comercio, Consumo y Seguridad Industrial, por la que se hace pública la convocatoria de ayudas económicas destinadas a entidades locales y entidades promovidas por ellas para la Promoción y Defensa de los Derechos e Intereses de las Personas Consumidoras y Usuarias para el ejercicio 2008.

La Orden de 30 de marzo de 2005, de la Consejera de Industria, Comercio, y Turismo, modificada por la Orden de 29 de mayo de 2007, de la Consejera de Industria, Comercio, y Turismo (BOPV de 27 de junio de 2007), desarrolla el programa de ayudas económicas destinadas a entidades locales y entidades promovidas por ellas para la promoción y defensa de los derechos e intereses de las personas consumidoras y usuarias.

Los recursos económicos destinados a la concesión de las citadas ayudas procederán de las correspondientes

ataletatik aterako dira laguntza horiek emateko erabiliko diren diru-baliabideak.

Aipatutako aginduaren 5. artikuluan ezarritakoaren arabera, egoki da hor iragarritako diru-laguntzak emateko, 2008ko ekitaldirako deialdia egitea, eta, horretarako, eman beharreko arau guztiak ematea.

Horiek horrela, aipatutako aginduaren 5. artikuluan ezarritako ahalmenaren indarrez, hau

XEDATU DUT:

**1. artikulua.**— Helburua.

1.— Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2005eko martxoaren 30eko Aginduak arautu zituen kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubide eta interesak sustatu eta babesteko toki erakundeei eta haiek sustatutako erakundeei eman beharreko diru-laguntzak. Bada, ebazpen honen bitartez, 2008ko ekitaldiari dagokionez, aipatu aginduan aurreikusitako laguntzetarako deialdia egiten da. Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2007ko maiatzaren 29ko Aginduz martxoaren 30eko aipatu agindua aldatu egin zen (2007ko ekainaren 27ko EHAA).

2.— Helburu hori betetzeko, 1.087.650 euro erabiliko dira, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan horretarako izendatutako aurrekontu-kredituaren arabera. Honela banatuko da diru hori:

a) 889.150 euroko aurrekontu-kreditua egongo da honako hauen gastuak ordaintzeko: kontsumitzaileei informazioa emateko udal bulegoen (KIUB) gune eta zerbitzuen funtzionamendua eta jarduerak; alegia, kontsumitzaileei eta erabiltzaileei argibideak eta prestakuntza emateko jarduerak eta gune eta zerbitzuon argitalpenak editatzeko eta zabaltzeko jarduerak.

b) Kontsumoko ikuskaritza-jardueren gastuak ordaintzeko 80.000 euroko aurrekontu-kreditua egongo da.

c) 118.500 euroko aurrekontu-kreditua egongo da kontsumitzaileei informazioa emateko udal bulegoen (KIUB) gune eta zerbitzuak instalatzeko, eraberritze-ko, handitzeko, hornitzeko edo lekuz aldatzeko.

3.— Diru-laguntzetarako jarritako kopurua aldatu egin daiteke —laguntzei buruzko ebazpena hartu aurretik betiere— kontuan hartuta eskatu diren laguntza guztiak eta Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak beste laguntza-programa batzuen aurrekontuetan agortu gabe dituen baliabideak. Horrelakorik gertatuz gero, horren berri emango du Merkataritza, Kontsumo eta Industria Segurtasuneko sailburuordeak, ebazpen baten bidez.

**2. artikulua.**— Betekizunak.

partidas presupuestarias previstas en el anteproyecto de ley de los presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

De conformidad a lo establecido en el artículo 5 de la citada Orden, procede realizar la convocatoria de las ayudas que en el mismo se establecen, para el ejercicio 2008, dictando a tal objeto las normas necesarias.

Por lo expuesto, en virtud de la facultad establecida en el artículo 5 de la Orden de referencia,

DISPONGO:

**Artículo 1.**— Objeto.

1.— Es objeto de la presente Resolución, la convocatoria para el ejercicio 2008 de las ayudas previstas en la Orden de 30 de marzo de 2005, de la Consejera de Industria, Comercio, y Turismo, modificada por la Orden de 29 de mayo de 2007 de la Consejera de Industria, Comercio, y Turismo (BOPV de 27 de junio de 2007) por la que se desarrolla el programa de ayudas económicas destinadas a entidades locales y entidades promovidas por ellas para la promoción y defensa de los derechos e intereses de las personas consumidoras y usuarias.

2.— Para este fin se destinará un total de 1.087.650 euros según el correspondiente crédito presupuestario establecido al respecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco que se distribuirá de la siguiente manera:

a) Para sufragar los gastos derivados del funcionamiento y realización de actividades de información y formación de las personas consumidoras y usuarias, y de edición y divulgación de publicaciones de Centros y Servicios destinados a Oficinas Municipales de Información a las Personas Consumidoras (OMIC) se dispondrá de un crédito presupuestario de 889.150 euros.

b) Para sufragar los gastos derivados de la realización de actividades de inspección de consumo se dispondrá de un crédito presupuestario de 80.000 euros.

c) Para sufragar los gastos derivados de la instalación, reforma, ampliación, equipamiento o cambio de ubicación de Centros y Servicios destinados a Oficinas Municipales de Información a las Personas Consumidoras (OMIC) se dispondrá de un crédito presupuestario de 118.500 euros.

3.— Los importes consignados en este artículo podrán ser modificados, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Industria, Comercio y Turismo y con carácter previo a la resolución de las mismas. De la presente circunstancia se dará publicidad mediante Resolución del Viceconsejero de Comercio, Consumo y Seguridad Industrial.

**Artículo 2.**— Requisitos.

Erakunde eskatzaileek, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2005eko martxoaren 30eko Aginduan iragarritako laguntzak jasotzeko, onuradun izateko baldintzak bete beharko dituzte, agindu horren 3. artikuluan ezarritakoaren arabera. Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2007ko maiatzaren 29ko Aginduaz martxoaren 30eko aipatu agindua aldatu egin zen (2007ko ekainaren 27ko EHAA).

### 3. artikulua.— Eskabideak eta epea.

1.— Eskabidea egiteko eredia Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko lurraldebulegoetan jaso daiteke, eta interneteko helbide honetan ere bai: [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net).

2.— Eskabideak eta gainerako agiri osagarriak Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Kontsumo eta Industria Seguritasuneko Zuzendaritzara bidali beharko dira, eta, aurkeztu, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren lurralde-bulegoetan aurkeztu behar dira; edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako lekuetan.

3.— Eskabideak aurkezteko epea ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu, eta biharamunean hasiko da; amaitu, berriz, 2008ko urtarilaren 18an.

### XEDAPEN GEHIGARRIA

Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargurako gastu-espeditenteen alde aurretiko izapideketa arautzen da. Bada, agindu horrekin bat etorriaz, ebazpen honetan aipatutako laguntzak emateko, kreditu egokia eta aski dena izan beharko da Autonomia Erkidegoaren 2008ko ekitaldira Aurrekontu Orokorretan.

Euskal Autonomia Erkidegoaren 2008ko ekitaldira Aurrekontu Orokorretan zehaztutako kreditua ebazpen honetan aurreikusitako zenbatekoa baino txikiagoa bada, aldatu egingo da errealitatean den zenbatekoari egokitzearen- Halakorik gertatuz gero, horren berri emango du Merkataritza, Kontsumo eta Industria Seguritasuneko sailburuordeak, ebazpen baten bidez eman ere.

### AZKEN XEDAPENAK

**Lebenengoa.**— Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango da, Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuari zuzenduta. Horretarako epea ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hasi eta hilabetekoa izango da.

Las entidades solicitantes, para poder acceder a las ayudas previstas en la Orden de 30 de marzo de 2005, de la Consejera de Industria, Comercio, y Turismo, modificada por la Orden de 29 de mayo de 2007 de la Consejera de Industria, Comercio, y Turismo (BOPV de 27 de junio de 2007), deberán cumplir las condiciones para poder ser beneficiaria, de conformidad con lo establecido en el artículo 3 de la Orden de referencia.

### Artículo 3.— Solicitudes y plazo.

1.— Un modelo de solicitud será facilitado en las Oficinas Territoriales del Departamento de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco, y en la dirección de Internet [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net).

2.— Las solicitudes y demás documentación complementaria habrán de dirigirse a la Dirección de Consumo y Seguridad Industrial, del Departamento de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco, y se presentarán en las Oficinas Territoriales del Departamento en cada Territorio Histórico, o en los lugares especificados en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

3.— El plazo de presentación de solicitudes se iniciará el día siguiente al de la publicación de la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco y finalizará el 18 de enero de 2008.

### DISPOSICIÓN ADICIONAL

De conformidad con la Orden de 26 de abril de 2007, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, por la que se regula la tramitación anticipada de expedientes de gasto con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, la concesión de las ayudas a que se refiere la presente Resolución, queda condicionada a la existencia de crédito adecuado y suficiente en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del ejercicio 2008.

En el supuesto de que el crédito que figurase finalmente en los Presupuestos Generales del País Vasco del ejercicio 2008 fuese inferior al importe previsto en el artículo 1 de la presente Resolución, se modificará el mismo a fin de adecuarlo al importe realmente existente. De dicha circunstancia se dará publicidad mediante la correspondiente resolución del Viceconsejero de Comercio, Consumo y Seguridad Industrial.

### DISPOSICIONES FINALES

**Primera.**— Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Consejera de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

**Bigarrena.**– Deialdi-ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko azaroaren 20a.

Merkataritza, Kontsumo eta  
Industria Segurtasuneko sailburuordea,  
RODRIGO GARCÍA AZURMENDI.

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

7094

AGINDUA, 2007ko azaroaren 27koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, ikasle ijitoei zuzendutako hezkuntza-jarduerak eskolaren esparruan garatzeko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin lankidetzan jarraitu nahi duten edo lankidetzan hasi nahi duten irabazi asmorik gabeko erakundeentzat diru-laguntzak deitzen dituen.

Hezkuntza-sistemak behar diren estrategiak eta baliabideak izan behar ditu, ikasle ijitoak, eskola-arrakasta lortzeko, gainontzeko ikasleen egoera berberetan egon daitezen.

Eskolak biztanleria guztia hartzen du, derrigorrezko eskolaldian behintzat. Eta eskolaldi hori nahitaezko izanik, honako konpromiso hau du: pertsona guztiei beren ahalmen-gaitasunak ahalik eta gehien gara ditzaten erraztea, gizarteratzeko eta laneratzeko aukera izan dezaten, berdintasun-baldintzetan.

Helburu horiek lortu eta ijito-herriak zor zaion lekua izan dezan, kulturarteko hezkuntza-proiektu bat behar du eskolak, desberdintasunak gainditu eta ikasle bakoitzaren premiak kontuan hartzea azpimarratuko duena. Segregazio- edo bereizketa-proposamenen aurrean, eskola inklusiboaren eredua da helburu horiek lortzeko ezinbesteko esparru, gizarte-koherencia, berdintasuna eta diferentzia errespetatzea kontuan hartuko duen testuingurua.

Gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoan 0 urte-tik aurrera bermatzen da hezkuntza eta 6 urtetik 16 urtera bitartean derrigorrezkoa da. Dena den, haurrak adin zehatz batzuetan eskolatze hutsak ez du, hezkuntzari begira, berdintasuna bermatzen.

Azken urteotan aurrerapen handiak izan dira ijitoen eskolatzean baina, hala ere, haur hauen eskola-arrakasta ez dago gure erkidegoko ikasle gehien maila beretan.

**Segunda.**– La presente Resolución de convocatoria entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 20 de noviembre de 2007.

El Viceconsejero de Comercio, Consumo  
y Seguridad Industrial,  
RODRIGO GARCÍA AZURMENDI.

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

7094

ORDEN de 27 de noviembre de 2007, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se convoca a Entidades sin ánimo de lucro, que deseen continuar o iniciar su colaboración con el Departamento de Educación, Universidades e Investigación, en el desarrollo, en el ámbito escolar, de actividades educativas dirigidas al Alumnado Gitano.

El Sistema Educativo ha de tener las estrategias y recursos necesarios para que el alumnado gitano esté en las mismas condiciones que el no gitano para lograr el éxito escolar.

La escuela acoge, al menos durante el período de escolaridad obligatoria, a toda la población. Y tiene el compromiso, por el hecho de ser obligatoria, de facilitar a todas las personas el desarrollo de sus capacidades y competencias al máximo, para que sea posible su inserción social y laboral, en condiciones de igualdad.

Para alcanzar estos objetivos y el pueblo gitano tenga cabida plenamente la escuela necesita un proyecto educativo intercultural, que ponga el énfasis en la superación de las desigualdades y tenga en cuenta las necesidades personales del alumnado. Frente a propuestas segregadoras, el modelo escolar de la escuela inclusiva es el marco indispensable para el logro de estos objetivos en un contexto de cohesión social, de igualdad en el respeto a la diferencia.

Actualmente, en la Comunidad Autónoma del País Vasco, la Educación se halla garantizada desde los 0 años y es obligatoria desde los 6 hasta los 16 años. No obstante, la mera escolarización de los niños y niñas en unas determinadas edades no garantiza su igualdad ante el hecho educativo.

A pesar de los grandes avances habidos estos últimos años en su escolarización, su éxito escolar no está al mismo nivel del de la mayoría del alumnado de nuestra comunidad.